

# Adela Ajquijay eta Sonia Raymundo

## «Gobernuak ez du ikusten mayak gehiengoa garela»

Garabide Elkarteak antolaturiko Hizkuntza eta Herrien arteko I. Truke Programak gonbidatuta, Euskal Herrian dira Ekuador, Txile, Bioko, Bolivia eta Guatemalatik etorritako bederatzi partaide. Sonia Raymundo eta Adela Ajquijay guatemaldarrekin maya hizkuntzez aritu gara.

Sonia Raymundo, Rigoberta Menchú Tum fundazioko hezkuntza arloko aholkularia da eta Adela Ajquijay, Kaqchikel fundazioko zuzendaritza-ko kide eta soziolinguista. Gainerako zazpiak bezala, euskararen esperientzia ezagutu eta lekuan lekuko errealitateak elkartrukatzeko gogoz etorri dira.

**Non hitz egiten dira hizkuntza mayak eta zein da euren jatorria?**

**Sonia Raymundo:** Maya hizkuntzak Guatemalan, Mexikoko zati batean eta Honduraseko eremu txiki batean hitz egiten dira. Egun, 22 hizkuntza maya hitz egiten dira Guatemalan eta guztiek protomaya dute ama hizkuntza edo enbor nagusi. Guatemalako biztanleriaren %60 inguru indigena da eta gehienek hizkuntza mayak hitz egiten dituzte.

**Zenbat maya zarete eta zenbat hiztun?**

**S. Raymundo:** Guatemalan hiru milioi hiztun inguru gara, baina hori Estatistikako Institutu Nazionalak eta 2002an egindako atlas linguistikoak emandako datua da. Dena dela, gehiago dira. Kopuru horretan ez dira kontuan hartzen haurrak eta Guatemalatik kanpora joandako pertsonak. Esaterako, AEBetan badira maya hiztunak.

LIERNI ALKORTA  
Argazkia: Dani Blanco

**Adela Ajquijay:** Urte batzuk igaro dira azterketa hartatik eta indigenen komunitateak azkar hazten direla kontuan hartu behar da. Gainera, Estatistikako Institutu Nazionalaren datua da eta Gobernuak gu minorizatzeko joera du. Beraz, ez da datu erreala.

**Zein egoeratan daude egun hizkuntza mayak?**

**S. Raymundo:** Hainbat ikuspegitik ikus dezakegu. Egun maya hizkuntzek alfabeto bateratua dute. Horrez gain, besteak beste, hizkuntzaren korpusarekin loturiko ikerketa ugari egin dira eta baita gramatikaz idazteko ekimenak ere. Baina gaur egun dugun ahultasun nagusia normalizazio falta da.

**A. Ajquijay:** Egindako ekimenak erakunde pribatu eta Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE) eskutik etorri dira, eta ez hainbeste Guatemalako Estatuaren ekimenetik. Gobernuak babesak eman baino, gutxiengo komunitatez hartu gaitu, ez du ikusten gehiengoa garela eta ez ditu gure eskubideak errespetatzen. Esaterako, hezkuntzaren eremuan ez daukagu behar bezainbeste errekurtsio, diru eta babesik.

**Herri indigenek euren identitate eta hizkuntzak baztertu dituztela esan ohi da. Zein unetan zaudete mayak?**



Adela Ajquijay (ezkerrean) eta Sonia Salomé Raymundo (eskuinean) ARGIAko egoitzan Lasarte-Orian.

**A. Ajquijay:** Aipaturiko ekimenak aurrera eramaten ari direnek gure kultura errekuiperatzeko konpromiso argia dute. Alabaina, komunitate gehienetan hizkuntzaren erabilera eta elementu kulturalen praktika alde batera uzten ari dira, Estatuak sortu duen diskriminazio politikaren ondorioz. Beraz, korrontearen aurka igeri egin nahi izatea bezala da. Hainbat urtez, kulturaren eta hizkuntzaren bazterketa sistematikoki egin da, eta horrek nabarmen eragin du.

**S. Raymundo:** Horrez gain, hizkuntzaren deskribapenaren arloan arreta handia jarri dugula eta eremu hori indartuta dagoela uste dut. Baina, batez ere gazteekin, lan asko egin beharra daukagu oraindik. Edonola ere, estereotipoek asko eragin dute eta, noski, gurasoek gaztelaniaren erabilera eskatzen dute eta ez hizkuntza mayarena, ez baitiote garrantzirik ematen. Hezkuntza Ministerioak asko dauka emateko eta onartzeko, oinarritzko curriculum nazionala dagoen unetik, hizkuntzaren eta kulturaren gaia, gai transbertsala izan behar da hezkuntza prozesuaren barnean. Ez da ikasgai soil eta isolatu bezala hartu behar, baizik eta Estatutik guztiontzat kulturen arteko hezkuntza elebiduna indartu behar da. Gaztelania hitz egiten dutenek ere, hizkuntza maya bat ikastearen alde egin behar dute. Horrela baino ez dugu lortuko Estatu elebiduna.

**Zein eremutan hitz egiten dira egun hizkuntza mayak?**

**S. Raymundo:** Familian hitz egiten dira bereziki. Eskoletan hezkuntza elebiduna ere txertatzen hasi da maila batean, arazo bat dago ordea. Nik matematikak edo gizarte gaiak ikas ditzaket, baina gaztelaniaz izango ditut klaseak. Gehienez, maya hizkuntzaren ikasgaia izango dut jatorrizko hizkuntzan. Gainera, ez da lehen hezkuntzako maila gorenetera ere helzen ekimen hori. Unibertsitateari

dagokionez, hainbat erakunde batu eta hizkuntza elementu transbertsala gisa ulertzen ere hasi dira.

**Hizkuntza mayek ba al dute ofizialtasunik Guatemalan?**

**S. Raymundo:** Hizkuntza Mayen Lege Nazionala daukagu eta berak erregulatzen du hizkuntzaren erabilera. Hala ere, gauden bezala gaude hizkuntza ofiziala gaztelania delako. Estatuak ez du debekatu, baina ez du ekimenik ere garatu. Lortu duguna hainbat hizkuntzaren estandarizazioa da, baina hori ere oso prozesu geldoa da. Esate baterako, Estatu mailan epaitegira edo osasun zentrorra joan

“Estereotipoek asko eragin dute eta, noski, gurasoek gaztelaniaren erabilera eskatzen dute eta ez hizkuntza mayarena, ez baitiote garrantzirik ematen”

SONIA RAYMUNDO

eta hizkuntza mayan artatzea ezinezkoa da.

**A. Ajquijay:** Hizkuntza Mayen Akademia da maila ofizialean lorpen handienetarikoa. Egitura zentrala du eta horren ostean 22 komunitate linguistiko daude. Hizkuntza politikan erabakitze falta dago eta finantziario gabezia ere bai.

**Administrazio publikoak zein jarrera erakusten du hizkuntza mayekiko?**

**S. Raymundo:** Erakunde horiek indigena ez direnek eta hizkuntza mayak hitz egiten ez dituztenek zuzentzen dituzte eta horrek zerbait esan nahi du. Egungo Gobernuaren enpresariala da, Hezkuntza ministroa enpresaria da eta ondorioz hizkuntzarekiko arreta oso urria da.

**Belaunaldi berriek nola ulertzen dute euren hizkuntza indigena, zein jarrera dute euren jatorriarekiko?**

**A. Ajquijay:** Komunitate linguistikoaren kokapenaren arabera asko aldatzen da. Herrialdearen erdialdean, esaterako, hiriburuaren gertutasuna garesti ordaindu dugu, hizkuntzaren galerari dagokionez. Alienazio gehiago dago, kulturarekiko bazterketa gehiago. Ezagutu arren, jada ez da erabiltzen. Nekazaritza ingurutik hurbilago dauden eremuetan aldiz hizkuntzak hobekiago mantentzen ari dira.

**Zein dira hizkuntza arloko hutsune eta arrisku nagusiak?**

**S. Raymundo:** Niretzat normalizazio linguistikoaren falta da hutsune nagusia. Normalizazio linguistiko bat bagenu, aurrera gehiago egingo genuke. Baina hori maya hitzun guztion esku dagoen borroka da.

**Etorkizuna nola ikusten duzue?**

**S. Raymundo:** Guztiok ematen diogun bultzadaren arabera izango da etorkizuna. Hizkuntza ez dago galera prozesuan. Badira oso hitzun gutxi dituzten maya hizkuntzak, baina orokorki, erakunde guztiak elkartuko bagenu, hizkuntzak harago joango lirateke, eta harago joan beharra dute. Garaiz gabiltza hizkuntza indartu eta aldarrikatzeko.

**Zerk bultzatu zaituzte hona etortzera?**

**S. Raymundo:** Euskaldunok bizi izan duzuen esperientzia ezagutu eta egungo egoerara iritsi arte eginiko bidea ezagutzeko helburuarekin etorri gara. Argi dago, zuei asko falta zai-zue, eta guri zuei falta zaiuzenaren bikoitza falta zaigu. Hemen daramagun denboran gure asmoak gaingitu ditugu, eta horrez gain, motibatu egin gara. Lanerako are gogo gehiagorekin itzuliko gara Guatemalara. ■

Babeslea: Oiarzungo Udala



Oiarzungo Udala  
www.oiarzungo.org

# OIARTZUN, UDALERRI EUSKALDUNA

Osasungintza, Lantegiak, Epaitegiak, Merkatal eta Finantza Zerbitzuak  
ere euskaldunduz. Euskaraz bizi nahi dugulako hamaika lan  
elkarrekin egiteko dugu.